2017ko ekitaldian, eta aurreko ekitaldian bezalaxe, «Higiezinaren inbertsioak» epigrafean jasotako alokatzeko eraikinen lagin baten gaineko barneko azterlanak egin ditu sozietateak horiek berreskuratzeko aukerari buruz erabakitzeko. Azterlan horien emaitzak higiezin guztietara eraman ditu sozietateak, eta aurten narriadurarik ez dela erregistratu behar erabaki du (2016. ekitaldian ez zen balio narriadurarik erregistratu ezta ere).

El cargo por amortización correspondiente a los elementos englobados bajo el epígrafe "Inmovilizado material" en el ejercicio 2017 ha sido de 15.182 euros (20.207 euros en el ejercicio 2016) (Nota 6).

Deterioro de valor de activos intangibles, materiales e inversiones inmobiliarias

Al cierre de cada ejercicio o siempre que existan indicios de pérdida de valor de un elemento del inmovilizado, la Sociedad procederá a estimar mediante el denominado "Test de deterioro" la posible existencia de pérdidas de valor que reduzcan el valor recuperable de dichos activos a un importe inferior al de su valor en libros.

El importe recuperable se determina como el mayor importe entre el valor razonable menos los costes de venta y el valor en uso. El valor en uso es el valor actual de los flujos de efectivo esperados, utilizando tipos de interés de mercado sin riesgo, ajustados por los riesgos específicos asociados al activo. Para aquellos activos que no generan flujos de efectivo independientes de los derivados de otros activos o grupos de activos, el importe recuperable se determina para las unidades generadoras de efectivo a las que pertenecen dichos activos.

Las correcciones valorativas por deterioro de los elementos del inmovilizado, así como su reversión, cuando las circunstancias que lo motivaron hubieran dejado de existir, se reconocerán como un gasto o un ingreso, respectivamente, en la cuenta de pérdidas y ganancias.

Cuando una pérdida por deterioro de valor revierte posteriormente, el importe en libros del activo se incrementa en la estimación revisada de su importe recuperable, pero de tal modo que el importe en libros incrementado no supere el importe en libros que se habría determinado de no haberse reconocido ninguna pérdida por deterioro en ejercicios anteriores.

En el ejercicio 2017, y al igual que en el ejercicio anterior, la Sociedad ha llevado a cabo estudios internos sobre una muestra de los edificios destinados al alquiler registrados en el epígrafe "Inversiones inmobiliarias" de cara a concluir sobre la recuperabilidad de los mismos. La Sociedad ha inferido los resultados de dichos estudios a la totalidad de los inmuebles concluyendo que no hay necesidad de deterioro (tampoco se registraron deterioros por este concepto en 2016).

c) Higiezin inbertsioak

Higiezin inbertsioak errentak modu jarraituan eskuratzeko guztiz edo zati batez jabetzan edukitako higiezi dagozkie; ez, ordea, ondasunen edo zerbitzuen ekoizpen edo horniduran erabiltzeko daudenei, edota sozietatearen administrazio-xedeetarako edo eragiketa arruntetan saltzeko daudenei.

Ibilgetu materialari buruzko 4.b oharrean adierazitako irizpideei jarraikiz balioesten dira aktibo horiek.

Higiezin inbertsioen amortizazio-kontzeptuagatik 2017ko ekitaldiaren galdu-irabazien kontura zordundutakoa 169.426 euro izan da (155.606 euro 2016ko ekitaldian) (7. oharra).

d) Errentamenduak

Errentamenduak finantza-errentamendu gisa sailkatzen dira, baldin eta errentamenduaren baldintzetatik ondorioztatzen bada maizterri transferitzen zaizkiola, batik bat, kontratuaren xede den aktiboaren jabeari dagozkion arriskuak eta mozkinak. Errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira gainerako errentamenduak.

Finantza-errentamendua

Sozietatea errentatzaile gisa

Industrialdea kontratuak», hau da, sozietateak egindako erosteko aukeradun errentamendu-kontratuak, bederlatzi eta hamabi urteko iraupena izan ohi dutenak, finantza-errentamenduko eragiketatzat hartzen dira beti ere ondasunaren gaineko arriskuak eta abantailak maizterri transferitzen bazaizkio, non berak oro har, eragiketa egitean hitzartutako baldintzetan eskuratzeko aukera izaten duen.

Finantza-errentamenduko eragiketetan, sozietateak errentatzaile jarduten badu, horiei ekiteko ulean errentamenduagatik jaso beharreko ordainketa minimoen balio eguneratuko kreditu bat aitortzen da, kontratuko interes-tasa implizitua kenduta. Aktiboan erregistratutako kredituaren eta kobratzeko kopuruaren arteko diferentzia, oraindik sortu gabeko interesei dagokiena, ekitaldiko galdu-irabazien kontura egotziko da horiek sortu ahala, interes-tasa efektiboaren metodoaren arabera.

Errentamendu operatiboa

Sozietatea errentatzaile gisa

Errentamendu operatiboko akordioetatik datozen diru-sarrerak eta gastuak galdu-irabazien kontuari egozten zaizkio, sortzen diren ekitaldian.

c) Inversiones inmobiliarias

Las inversiones inmobiliarias corresponden a inmuebles, que se poseen total o parcialmente para obtener rentas de forma continuada, en lugar de para su uso en la producción o suministro de bienes o servicios, o bien para fines administrativos de la Sociedad o su venta en el curso ordinario de las operaciones.

Estos activos se valoran de acuerdo con los criterios indicados en la Nota 4.b, relativa al inmovilizado material.

El cargo a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio 2017 por el concepto de amortización de las Inversiones inmobiliarias ascendió a 169.426 euros (155.606 euros en el ejercicio 2016) (Nota 7).

d) Arrendamientos

Los arrendamientos se clasifican como arrendamientos financieros, siempre que de las condiciones de los mismos se deduzca que se transfieren al arrendatario sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a la propiedad del activo objeto del contrato. Los demás arrendamientos se clasifican como arrendamientos operativos.

Arrendamiento financiero

Sociedad como arrendador

Los "Contratos industrialdea", contratos de arrendamiento con opción de compra, formalizados por la Sociedad, que normalmente tienen una duración de nueve a doce años, se consideran operaciones de arrendamiento financiero, siempre y cuando los riesgos y beneficios que recaen sobre el bien objeto del arrendamiento se transfieren al arrendatario, quien, habitualmente, tiene la opción de adquirirlo en las condiciones acordadas al formalizarse la operación.

En las operaciones de arrendamiento financiero en las que la Sociedad actúa como arrendador, en el momento inicial de las mismas se reconoce un crédito por el valor actual de los pagos mínimos a recibir por el arrendamiento, descontado al tipo de interés implícito del contrato. La diferencia entre el crédito registrado en el activo y la cantidad a cobrar, correspondiente a intereses no devengados, se imputa a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio a medida que se devengan, de acuerdo con el método del tipo de interés efectivo.

Arrendamiento operativo

Sociedad como arrendador

Los ingresos y gastos derivados de los acuerdos de arrendamiento operativo se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en que se devengan.

Halaber, errentan emandako ondasuna eskuratzeko kostua haren izaeraren arabera aurkezten da balantzean, zuzenean egotz dakizkiokeen kontratuko kostuen zenbatekoa gehituta; azken horiek gastu gisa aitortzen dira kontratuaren epean, errentamenduko diru-sarrerak aitortzeko erabili den irizpide bera aplikatuz.

e) *Finantza-tresnak*

Finantza-aktiboak

Sailkapena

Sozietatearen finantza-aktiboak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

- a) Maileguak eta kobratzeko partidak: ondasun-salmentan edo enpresaren trafikotengatik zerbitzu-prestazioan sortutako finantza-aktiboak edota, merkataritza-jatorria eduki gabe, ondare-tresnak edo deribatutako ez direnak, baldin eta haien kobrantzak zenbateko zehatzekoak edo zehaztu daitekeen zenbatekokoak badira eta merkatu aktibo batean negoziatzen ez badira.

Hasierako balorazioa

Finantza-aktiboak, hasieran, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioarekin erregistratzen dira, zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak gehituta.

Hasieran eta ondoren balio nominalean baloratuko dira urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuko interes-tasarik ez duten eragiketa komertzialetako kredituak, eta, halaber, epe laburrean kobratzekoak diren langileei emandako aurrerakinak eta kredituak eta ondare-tresnei buruz galdatutako ordainketak, sozietatearen administratzaileek uste baitute eskudiru-fluxuak ez eguneratzeak ez duela eragin adierazgarririk.

Geroko balorazioa

Kobratzeko maileguak eta partidak kostu amortizatuan baloratuko dira.

Galdu-irabazien kontuan jasoko dira narriaduragatiko galerak, eta zuzenean murriztuko da ondare-tresna. Narriaduragatiko balorazio-zuzenketa itzulketa galdu-irabazien kontuan erregistratuko da, eta balio-narriadurarik ezean inbertsio horrek itzulketa-egunean izango zuen kontabilitateko balioa izango du mugatzat.

Ekitaldia ixtean gutxienez, sozietateak narriaduratest bat egingo du arrazoizko balioarekin jasota ez dauden finantza-aktiboak dagoenez. Narriaduraren ebidentzia objektiboa dagoela jotzen da finantza-aktiboaren balio berreskuragarria kontabilitateko

Asimismo, el coste de adquisición del bien arrendado se presenta en el balance conforme a su naturaleza, incrementado por el importe de los costes del contrato directamente imputables, los cuales se reconocen como gasto en el plazo del contrato, aplicando el mismo criterio utilizado para el reconocimiento de los ingresos del arrendamiento.

e) *Instrumentos financieros*

Activos financieros

Clasificación

Los activos financieros que posee la Sociedad se clasifican en las siguientes categorías:

- a) Préstamos y partidas a cobrar: activos financieros originados en la venta de bienes o en la prestación de servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o los que, no teniendo un origen comercial, no son instrumentos de patrimonio ni derivados y cuyos cobros son de cuantía fija o determinable y no se negocian en un mercado activo.

Valoración inicial

Los activos financieros se registran inicialmente al valor razonable de la contraprestación entregada más los costes de la transacción que sean directamente atribuibles.

Los créditos por operaciones comerciales con vencimiento no superior a un año y que no tienen un tipo de interés contractual, así como los anticipos y créditos al personal y los desembolsos exigidos sobre instrumentos de patrimonio, cuyo importe se espera recibir en el corto plazo, se valoran inicialmente y posteriormente por su valor nominal, ya que los Administradores de la Sociedad consideran que el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no es significativo.

Valoración posterior

Los préstamos y partidas a cobrar se valoran por su coste amortizado.

Las pérdidas por deterioro se registran en la cuenta de pérdidas y ganancias minorando directamente el instrumento de patrimonio. La reversión de las correcciones valorativas por deterioro se registra en la cuenta de pérdidas y ganancias, con el límite del valor en libros que tendría la inversión en la fecha de reversión si no se hubiera registrado el deterioro de valor.

Al menos al cierre del ejercicio, la Sociedad realiza un test de deterioro para los activos financieros que no están registrados a valor razonable. Se considera que existe evidencia objetiva de deterioro si el valor recuperable del activo financiero es inferior a su

balioa baino txikiagoa bada. Halakorik dagoenean, narriadura horren erregistroa galdu-irabazien kontuan jasotzen da.

Zehazki, eta merkataritzako zordunei eta kobratzeko bestelako kontuei buruzko balorazio-zuzenketei dagokienez, sozietateak dagozkien balorazio-zuzenketak kalkulatzeko erabili duen irizpidea honako hau izan da: ordainketa atzeratua, kaudimengabezia, berandutzea edo bestelako zergatiak direla-eta egoera irregularra duten merkataritzako kontuetan estimatzen den narriaduraren zenbatekoa galdu-irabazien kontura zordunduta jaso du, horrelakoan kobragarritasuna banan-banan aztertuz, eta erantsitako balantzeko «Salmenta eta zerbitzu-prestazioengatikoa bezeroak» kontuaren zenbatekoa kendu dio horri. 2017 eta 2016ko ekitaldian, sozietateak ez du balio-zuzenketarik jaso.

Sozietateak finantza-aktiboei baja ematen die dagokion finantza-aktiboaren eskudiru-fluxuaren gaineko eskubideak amaitu edo laga direnean, baldin eta horrelakoak edukitzearen berezko arriskuak eta mozkinak funtsean transferitu badira, hala nola aktiboen salmenta irmoetan, finantza-aktiboak arazoizko balioan berriro erosteko ituna eginda saltzean edo finantza-aktiboen titulazioetan, baldin eta enpresa lagatzaileak ez badu mendeko finantzaketarik, ez bestelako bermerik atxikitzen, ezta beste arrisku motaren bat bere gain hartzen ere.

Sozietateak ez die finantza-aktiboei bazarrik ematen, eta jasotako ordainaren zenbateko bereko finantza-pasiboa aitortzen du, ordea, finantza-aktiboen lagapenetan, baldin eta horrelakoak edukitzearen berezko arriskuak eta mozkinak funtsean atxikitzen baditu (hala nola efektu-deskontuan, prezio finkoan edo salmenta-prezioa gehi interes batean berrerosteko itunarekin saldutako finantza-aktiboetan, eta finantza-aktiboen titulazioetan, erakunde lagatzaileak atxikitzen baditu mendeko finantzaketak edo espero diren galera guztiak funtsean jasateko moduko bermeak).

Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak dira sozietatearen zordunketak eta ordaintzeko partidak, baldin eta enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak eta zerbitzuak erostean sortu badira, edo, bai eta merkataritzajatorririk ez duten arren, finantza-tresna deribatutzat hartu ezin direnak ere.

Zordunketak eta ordaintzeko partidak jasotako ordainaren arazoizko balioan balioesten dira hasieran, zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuen arabera egokituta. Ondoren, pasibo horiek amortizatutako kostuaren arabera balioesten dira. Aurrekoa gorabehera, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten zordunketak balio nominalen balioesten dira hasieran, eta aurrerantzean ere zenbateko horretan balioetsiko dira, administratzaileen iritziz ez baita adierazgarria fluxuak ez eguneratzearen eragina.

valor en libros. Cuando se produce, el registro de este deterioro se registra en la cuenta de pérdidas y ganancias.

En particular, y respecto a las correcciones valorativas relativas a los deudores comerciales y otras cuentas a cobrar, el criterio utilizado por la Sociedad para calcular las correspondientes correcciones valorativas consiste en registrar con cargo a la cuenta de pérdidas y ganancias el importe del deterioro estimado en las cuentas comerciales que están en situación irregular por pago atrasado, insolvencia, mora u otras causas, mediante el análisis individual de la cobrabilidad de las mismas, minorando el importe de la cuenta "Clientes por ventas y prestaciones de servicios" del balance adjunto. Durante el ejercicio 2017 y 2016 la Sociedad no ha registrado corrección valorativa alguna.

La Sociedad da de baja los activos financieros cuando expiran o se han cedido los derechos sobre los flujos de efectivo del correspondiente activo financiero y se han transferido sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad, tales como en ventas en firme de activos, las ventas de activos financieros con pacto de recompra por su valor razonable o las titulaciones de activos financieros en las que la empresa cedente no retiene financiaciones subordinadas ni concede ningún tipo de garantía o asume algún otro tipo de riesgo.

Por el contrario, la Sociedad no da de baja los activos financieros, y reconoce un pasivo financiero por un importe igual a la contraprestación recibida, en las cesiones de activos financieros en las que se retenga sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad, tales como el descuento de efectos, las ventas de activos financieros con pactos de recompra a un precio fijo o al precio de venta más un interés y las titulaciones de activos financieros en las que la empresa cedente retiene financiaciones subordinadas u otro tipo de garantías que absorben sustancialmente todas las pérdidas esperadas.

Pasivos financieros

Son pasivos financieros aquellos débitos y partidas a pagar que tiene la Sociedad y que se han originado en la compra de bienes y servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o también aquellos que sin tener un origen comercial, no pueden ser considerados como instrumentos financieros derivados.

Los débitos y partidas a pagar se valoran inicialmente al valor razonable de la contraprestación recibida, ajustada por los costes de la transacción directamente atribuibles. Con posterioridad, dichos pasivos se valoran de acuerdo con su coste amortizado. No obstante lo anterior, los débitos con vencimiento no superior a un año que se valoran inicialmente por su valor nominal, continúan valorándose por dicho importe, ya que los Administradores consideran que el efecto de no actualizar los flujos no es significativo.

Sozietateak finantza-pasiboei baja ematen die horrelakoak sortu dituzten obligazioak amaitzen direnean.

f) Izakinak

Egoera-balantzearen epigrafe honetan biltzen dira sozietateak ustiapeneko ziklo normalean saltzeko atxikitzen dituen aktiboak, xede horrekin ekoizteko, eraikitze edo garatzeko prozesuan daudenak edo ekoizteko prozesuan edo zerbitzu-prestazioen kontsumituko direnak.

Sozietateak izakinak eskuratze-kostuan balioesten ditu, edo merkatuko balioan azken hori txikiagoa bada. Eskuratze-kostuaren barruan lurren eta orubeen kostua zein ekitaldia amaitu arte izandako urbanizatzeko kostuak eta higiezinaren sustapenak eraikitze kostuak sartzen dira; kostu horien artean daude eraikuntza gainbegiratu, koordinatu eta kudeatzeko gastuak, baita, hala dagokionean, urbanizatzeko eta/edo eraikitze aldian sortutako finantza-gastuak ere, saltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar duten izakinak badira betiere. Izakinak merkatuko balioa baino kostu-prezio handiagoan erregistraturik badaude, bidezko balorazio-zuzenketak egiten dira, narriadurak eragindako dagokion hornidura eginda.

Nolanahi ere, lurren eta orubeen kostuan finantza-kostuak ere badaude halakoak egokitzeko lanei ekiten zaienetik bertatik; lan fisikoak hartzen dira horrelakotzat, urbanizazioa eta eraikuntza, besteak beste. Hau da, lurra eta orubeak sozietatearen ondarrera gehitzearekin batera ez badituzte horiek egokitzeko lanak aldi berean hasten, aldi horretan finantza-gastuak kapitalizatzea ez dela egokia jotzen da. Halaber, kapitalizazioa ere etengo da eraikuntza eta/edo urbanizazioa eteten bada. Sozietateak, hortaz, ez du finantza-gasturik kapitalizatzen lurzoruaren hirigintza-garapenerako behar diren hirigintza-jarduketak egiten ez dituzten aldian.

Aurretik adierazitako irizpideari jarraikiz, sozietateak izakinen balio handien gisa aktibatzen ditu finantzaketa-iturri espezifikoaren ondoriozko finantza-gastuak, galdu-irabazien kontuen «Finantza-gastuen aktibora eranstea» izeneko epigraferara ordainduta erregistratzen direnak.

Taldeari lotuta ez dauden aditu independenteek egindako balioespenak edota barneko azterketak oinarri hartuta estimatzen da izakinen arrazoizko balioa. Dena den, balioespen horiek, batik bat, lursailetarako hondar-metodo dinamikoaren bidez eta bidean eta amaituta dagoen produkturako fluxu-deskontuaren bidez kalkulatzeko dute arrazoizko balioa, Britainia Handiko Royal Institute of Chartered Surveyors (RICS) erakundeak argitaratutako Balioespen eta Tasazio Estandarrekin bat etorritik, eta

La Sociedad da de baja los pasivos financieros cuando se extinguen las obligaciones que los han generado.

f) Existencias

Este epígrafe del balance de situación recoge los activos que la Sociedad mantiene para su venta en el ciclo normal de explotación, se encuentran en proceso de producción, construcción o desarrollo con dicha finalidad, o serán consumidos en el proceso de producción o en la prestación de servicios.

La Sociedad valora sus existencias a coste de adquisición o a valor de mercado, si este último fuera inferior. El coste de adquisición incluye tanto el coste de los terrenos y solares, como los costes de su urbanización y los de construcción de las promociones inmobiliarias incurridos hasta el cierre de cada ejercicio, entre los que se incluyen los costes correspondientes a supervisión, coordinación y gestión de la construcción, así como, en su caso, los gastos financieros devengados durante el período de urbanización y/o construcción, siempre que se trate de existencias que necesitan un período de tiempo superior a un año para estar en condiciones de ser vendidas. En el caso de que las existencias estén registradas a un precio de coste superior a su valor de mercado se realizan las oportunas correcciones valorativas, dotando la correspondiente provisión por deterioro.

No obstante, el coste de terrenos y solares incorpora costes financieros a partir del momento en que se produce el inicio de las obras de adaptación de los mismos, entendiéndose por tales las obras físicas como la urbanización y construcción. Esto es, si no coinciden en el tiempo la incorporación de terrenos o solares al patrimonio de la Sociedad y el comienzo de las obras de adaptación de las mismas, se considera que durante dicho periodo no procede la capitalización de gastos financieros. Asimismo, cesa la capitalización en el caso de producirse una interrupción en la construcción y/o urbanización. La Sociedad no capitaliza por tanto gastos financieros en el periodo de tiempo en el cual no se están realizando actuaciones urbanísticas necesarias para el desarrollo urbanístico del suelo.

La Sociedad activa como mayor valor de existencias, de acuerdo con el criterio anteriormente indicado, gastos financieros derivados de fuentes de financiación específicas que se registran con abono al epígrafe "Incorporación al activo de gastos financieros" de la cuenta de pérdidas y ganancias.

El valor razonable de las existencias se estima bien en base a valoraciones realizadas por expertos independientes no vinculados al Grupo o bien en base a estudios internos. En todo caso, dichas valoraciones calculan el valor razonable principalmente por el método residual dinámico para terrenos y por descuento de flujos para producto en curso y terminado, de acuerdo con los Estándares de Valoración y Tasación publicados por la Royal Institute of Chartered Surveyors (RICS) de Gran

Balioespen Estandarren Nazioarteko Batzordeak (IVSC) argitaraturiko Nazioarteko Balioespen Estandarrekin bat etorriz.

Arrazoizko balio hori kalkulatzeko, aurretik adierazi bezala, hondar-metodo dinamikoa edo kutxa-fluxuena erabili dugu lurren eta bidean/amaituta dagoen produktuaren izakin guztietarako, hurrenez hurren. Metodo horren bidez lursailen / bidean eta amaituta dagoen produktuaren balioa zenbatesten da kutxa-fluxua alderatzeko edo deskontatzeko metodoa oinarri hartuta, eta balio horretatik aktibo bakoitzean falta den garapenaren kostuak kentzen dira garapen-mailaren arabera; horren barruan, hortaz, hala badagokio, urbanizazio-kostua, eraikitzea, ordainsariak, tasak, merkataritza-kostuak eta abarrak jasotzen dira, eta sustatzailearen mozkina ez da kentzen hondar-balioa zenbatesteko sozietatearen aktiboen berezitasunagatik, ekonomia eta industria sustatzeko politika garatzeko Eusko Jaurlaritzaren tresna bat baita. Horregatik, hain zuzen, diferentzia dago aktiboen merkatuko balioaren eta diru bihurtuz gero horiek sozietaterako izango luketen balio garbiaren artean; hala, lehena txikiagoa da bigarrena baino.

Aipatutako aktibo horiek azkenean diru bihurtzea ez dago horrenbeste merkatuko abagunearen mende; baizik eta, batez ere, sozietateak ezarritako helburuen araberako industria-proiektu egokiak egotearen mende dago. Halere, aktibo bakoitza balioztatzea planteatzen da kokapenaren eta ezaugarrien arabera. Sustapen bakoitzari loturiko diru-sarrerak eta kostuak denboran banatzen dira baloratzaileak estimatutako garapen- eta salmenta-aldien arabera. Eguneratzeko tasa modura erabiltzen da aktiboaren berezko ezaugarrien eta arriskuen araberako proiektuaren urteko batez besteko errentagarritasuna ordezkatzeko duena, besteren finantzaketa kontuan hartu gabe; hots, sustatzaile arrunt batek lortuko lukeena aztertutakoaren tankerako ezaugarriak dituen sustapen batean. Eguneratze-tasa hori kalkulatzeko, arriskurik gabeko tasari arrisku-prima gehitzen zaio (azken hori sustapenaren arriskua ebaluatuz zehazten da, garatu beharreko edo garatzeko bidean dagoen aktibo higiezin mota, haren kokapena, likidezia, gauzatzeko epea zein behar den inbertsioaren bolumena kontuan harturik).

Izakinak balio berreskuragarria baino kostu-prezio handiagoan erregistraturik badaude (kostu hori adierazitako metodoei jarraikiz zehaztuta), bidezko balorazio-zuzenketak egingo dira, narriadurak eragindako dagokion hornidura eginda (10. oharra). Aipatutako hornidura, 2017ko abenduaren 31n, 2.714.689 euro da (2.714.689 euro 2016ko abenduaren 31n). Etorkizuneko itxaropenaren inguruan oinarritutako informazioaren karaktere zalantzarriaren ondorioz, proiektatutako emaitzaren eta emaitza errealean desberdintasunak izaterik daude.

Sozietateak dagozkion balorazio-zuzenketak egiten ditu, eta galdu-irabazien kontuan gastu gisa jasotzen

Bretaña, y de acuerdo con los Estándares Internacionales de Valoración (IVS) publicados por el Comité Internacional de Estándares de Valoración (IVSC).

Para el cálculo de dicho valor razonable, como se ha comentado anteriormente, se ha utilizado el método residual dinámico o de flujos de caja para todas las existencias de terrenos y producto en curso/terminado respectivamente. Este método consiste en estimar el valor del terrenos/ producto en curso y terminado apoyándose en el método de comparación o de descuento de flujo de caja y de este valor se restan los costes de desarrollo pendiente de cada activo en función de su estadio de desarrollo y que incluyen por tanto, en su caso, el coste de urbanización, de construcción, honorarios, tasas, costes comerciales etc., sin eliminarse el beneficio de promotor para estimar el valor residual dada la singularidad de los activos de la Sociedad, de carácter estratégico, al ser la misma un vehículo del Gobierno Vasco para el desarrollo de su política de promoción económica e industrial. Por esta razón existe una diferencia entre el valor de mercado de los activos y su valor neto de realización para la Sociedad, siendo el primero inferior al segundo.

La realización final de dichos activos no depende tanto de la coyuntura del mercado en un momento determinado, sino, principalmente, de la existencia de proyectos industriales adecuados a los objetivos establecidos por la Sociedad si bien se plantea para cada activo la puesta en valor en función de su ubicación y características. Los ingresos y costes asociados a cada promoción se distribuyen en el tiempo según los periodos de desarrollos y de ventas estimados por el valorador. Se utiliza como tipo de actualización aquél que represente la rentabilidad media anual del proyecto adecuado a las características y riesgos inherentes al activo, sin tener en cuenta financiación ajena, que obtendría un promotor medio en una promoción de las características de la analizada. Este tipo de actualización se calcula sumando al tipo libre de riesgo, la prima de riesgo (determinada mediante la evaluación del riesgo de la promoción teniendo en cuenta el tipo de activo inmobiliario a desarrollar o en desarrollo, su ubicación, liquidez, plazo de ejecución, así como el volumen de la inversión necesaria).

En caso de que las existencias estén registradas por un precio de coste que resulte superior a su valor recuperable, determinado éste según los métodos indicados, se realizarán las oportunas correcciones valorativas, dotando la correspondiente provisión por deterioro (Nota 10). Dicha provisión, a 31 de diciembre de 2017 asciende a 2.714.689 euros (2.714.689 euros a 31 de diciembre de 2016). Dado el carácter incierto que tiene cualquier información basada en expectativas futuras, se podrían producir diferencias entre los resultados proyectados y los reales.

La Sociedad efectúa las oportunas correcciones valorativas, reconociéndolas como un gasto en la

ditu izakinen balio berreskuragarria eskuratzeprezioa (edo ekoizpen-kostua) baino txikiagoa bada.

g) Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zergagatiko gastuaren edo diru-sarreraren barruan zerga korranteagatiko gastuari edo diru-sarrerari dagokion zatia eta zerga geroratuagatiko gastuari edo diru-sarrerari dagokion zatia sartzen dira.

Zerga korrantea sozietateak ekitaldi bateko mozkinaren gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz ordaindutako zenbatekoa da. Zergaren kuotako kenkariek eta bestelako abantaila fiskalek, atxikipenak eta konturako ordainketak salbuetsita, bai eta aurreko ekitaldietako eta honetan egiaz aplikatutako zerga-galera konpentsagarriek ere, zerga korrantearen zenbateko txikiagoa egotea dakarte.

Zerga geroratuagatiko gastua edo diru-sarrera zerga geroratuagatiko aktiboen eta pasiboen aitortpenarekin eta ezereztearekin bat dator. Horrelakoek aldi baterako diferentziak hartzen dituzte barnean; aktiboen eta pasiboen kontabilitateko zenbatekoen eta haien balio fiskalaren arteko diferentzien ondorioz ordaintzea edo berreskuratzea aurreikusitako zenbatekoak dira horiek, bai eta konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak eta fiskalki aplikatu gabeko kenkari fiskalengatiko kredituak ere. Zenbateko horiek erregistratzeko, berreskuratzea edota kitzatzea espero den karga-tasa aplikatzen zaio dagokion aldi baterako diferentziari edo kredituari.

Zerga geroratuagatiko pasiboak aitortzen dira aldi baterako diferentzia zergapegarri guztientzat, betiere merkataritzako funtsen edo bestelako aktibo edo pasiboen hasierako aitortpenaren ondoriozkoak ez badira, eta horrelakoak ez emaitza fiskalari ezta kontabilitateko emaitzari ere eragiten ez dion eragiketa batean gertatzen badira eta negoziazio-konbinazio bat ez bada.

Zerga geroratuagatiko aktiboak, bestalde, sozietateak datozen hamar ekitaldietan horiek gauzatu ahal izateko behar adina zerga-irabazi izango dituela litekeena dela jotzen denean baino ez dira aitortuko.

Zerga geroratuagatiko aktiboak eta pasiboak, ondare-kontuetan zuzeneko karguak edo ordainketak dituzten eragiketen ondorio direnak, ere kontabilizatzen dira ondare garbian kontrapartida eginda.

Kontabilitatea ixten den aldiro zerga geroratuagatiko erregistraturik dauden aktiboak berriz aztertzen dira, eta horiei dagozkien zuzenketak egiten dira etorkizunean berreskuratzeari buruz zalantzarik dagoen neurrian. Halaber, balantzean erregistraturik ez dauden zerga geroratuagatiko aktiboak ere ebaluatzen dira itxiera bakoitzean, eta horiek aitortuko dira etorkizunean mozkin fiskalekin berreskuratzea gertagarri bilakatzen den heinean.

cuenta de pérdidas y ganancias cuando el valor recuperable de las existencias es inferior a su precio de adquisición (o a su coste de producción).

g) Impuesto sobre beneficios

El gasto o ingreso por impuesto sobre beneficios comprende la parte relativa al gasto o ingreso por el impuesto corriente y la parte correspondiente al gasto o ingreso por impuesto diferido.

El impuesto corriente es la cantidad que la Sociedad satisface como consecuencia de las liquidaciones fiscales del impuesto sobre el beneficio relativas a un ejercicio. Las deducciones y otras ventajas fiscales en la cuota del impuesto, excluidas las retenciones y pagos a cuenta, así como las pérdidas fiscales compensables de ejercicios anteriores y aplicadas efectivamente en éste, dan lugar a un menor importe del impuesto corriente.

El gasto o el ingreso por impuesto diferido se corresponde con el reconocimiento y la cancelación de los activos y pasivos por impuesto diferido. Estos incluyen las diferencias temporarias que se identifican como aquellos importes que se prevén pagaderos o recuperables derivados de las diferencias entre los importes en libros de los activos y pasivos y su valor fiscal, así como las bases imponibles negativas pendientes de compensación y los créditos por deducciones fiscales no aplicadas fiscalmente. Dichos importes se registran aplicando a la diferencia temporaria o crédito que corresponda el tipo de gravamen al que se espera recuperarlos o liquidarlos.

Se reconocen pasivos por impuesto diferido para todas las diferencias temporarias imponibles, excepto aquellas derivadas del reconocimiento inicial de fondos de comercio o de otros activos y pasivos en una operación que no afecta ni al resultado fiscal ni al resultado contable y no es una combinación de negocios.

Por su parte, los activos por impuesto diferido sólo se reconocen en la medida en que se considere probable que la Sociedad vaya a disponer de ganancias fiscales futuras contra las que poder hacerlos efectivos en los próximos diez ejercicios.

Los activos y pasivos por impuesto diferido, originados por operaciones con cargos o abonos directos en cuentas de patrimonio, se contabilizan también con contrapartida en patrimonio neto.

En cada cierre contable se reconsideran los activos por impuesto diferido registrados, efectuándose las oportunas correcciones a los mismos en la medida en que existan dudas sobre su recuperación futura. Asimismo, en cada cierre se evalúan los activos por impuestos diferidos no registrados en balance y éstos son objeto de reconocimiento en la medida en que pase a ser probable su recuperación con beneficios fiscales futuros.

h) Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapean-irizpidearen arabera egozten dira, hau da, haiek irudikatzen duten ondasunen eta zerbitzuen korrante erreala gertatzen denean, haien ondoriozko moneta-korranteak edo finantza-korranteak edozein unetan gertatzen direlarik ere. Diru-sarrera horiek jasotako ordainaren arrazoizko balioagatik balioesten dira, horri deskontuak eta zergak kendu ostean.

Higiezinaren sustapena eta/edo lursail garapena

Salmentengatik diru-sarrerak aitortzen dira saldutako ondasunaren jabetzaren berezko arrisku eta mozkin adierazgarriak erosleari transferitzen zaizkion unean; orduan ez zaio eusten ondasun horren gaineko kudeaketa arruntari, eta ez zaio atxikitzen haren gaineko kontrolari. Pabiloien salmentei dagokienez, sozietatearen irizpidea da salmentengatik mozkinaren aitortzea jabetza saltzaileari legez eskualdatzen zaion unean, giltzak emateko edo eskritura publikoa egiteko unean, alegia.

Higiezinaren sustapenen salmentei dagokienez, sozietateak salmentak eta haien kostua aitortzen ditu higiezinak eta finkak ematen dituztenean eta haien jabetza transferitzen denean. Ondore horietarako, amaitutako bizitegi-produktuaren salmenta gauzatuatzat jotzen da giltzak ematean, hau da, eskritura publikoa egiteko eta prezioa kobratzeko unean.

Higiezinaren sustapen baten salmenta-unitateei esleitutako kostua zehazteko orduan, sustapen osoko balioaren gaineko salmenta-preziari dagokionez duen proportzio bera esleituko zaio saldu beharreko unitate bakoitzari sustapenaren guztizko kostuetan.

Bezeroek etorkizuneko eraikinen salmenten kontura emandako zenbatekoak, eskudiruzkoak zein ondore komertzialenak, salmenta, aurretik azaldutako moduan, aitortzen ez denez, jasotako aurrerakin gisa erregistratzen dira egoera-balantzeko pasiboaren «Pasibo korrantea - Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak - Bezeroen epe luze eta laburrerako aurrerakinak» epigrafean (15. oharra).

Sozietatearen salmenta-kontratuek, oro har, atzera eskuratzeko bere aldeko itun bat jasotzen dute, erosleak saldutako ondasunak 10 urteko epean, eskritura publikoaren egunetik aurrera zenbatuta, eskualdatu, besterendu edo errentan eman nahiko balitu ere. Atzera eskuratzeko aukera hori gauzatzeko (borondatezkoa sozietatearentzat), ondasunen salmenta-prezioa gehi kontratuko gastuak zein beste edozein gastu legitimo ordaindu beharko ditu, beharrezko diren gastuak eta egindako

h) Ingresos y gastos

Los ingresos y gastos se imputan en función del criterio de devengo, es decir, cuando se produce la corriente real de bienes y servicios que los mismos representan, con independencia del momento en que se produzca la corriente monetaria o financiera derivada de ellos. Dichos ingresos se valoran por el valor razonable de la contraprestación recibida, deducidos descuentos e impuestos.

Promoción inmobiliaria y/o desarrollo de suelo

El reconocimiento de los ingresos por ventas se produce en el momento en que se han transferido al comprador los riesgos y beneficios significativos inherentes a la propiedad del bien vendido, no manteniendo la gestión corriente sobre dicho bien, ni reteniendo el control efectivo sobre el mismo. Por lo que se refiere a las ventas de pabellones, la Sociedad sigue el criterio de reconocer el beneficio por las ventas en el momento en que se produce el traspaso legal de la propiedad al comprador, que coincide con el momento de entrega de llaves o elevación a escritura pública.

Por lo que se refiere a las ventas de promociones inmobiliarias, la Sociedad sigue el criterio de reconocer las ventas y el coste de las mismas cuando se han entregado los inmuebles y fincas y la propiedad de éstos ha sido transferida. A estos efectos se entiende que tiene lugar la venta de producto terminado residencial cuando se produce la entrega de llaves, que coincide con el levantamiento de escritura pública y cobro del precio.

El coste asignado a las unidades de venta de una promoción inmobiliaria, se determina asignando a cada unidad objeto de venta la parte de los costes totales de la promoción que resulta de aplicar a los mismos la misma proporción que representa su precio de venta sobre el valor estimado del conjunto de la promoción.

Los importes percibidos de clientes a cuenta de ventas futuras de edificaciones, tanto en efectivo como en efectos comerciales, en tanto en cuanto no se produce el reconocimiento de la venta en los términos descritos anteriormente, se registran, en su caso, como anticipos recibidos en los epígrafes "Pasivo corriente - Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar - Anticipos de clientes a largo y corto plazo" del pasivo del balance de situación (Nota 15).

Los contratos de venta de la Sociedad recogen, con carácter general, un pacto de retro (retracto convencional) a su favor para el caso de que la compradora desee transmitir, enajenar o arrendar los bienes vendidos dentro del plazo de 10 años a partir de la fecha de la escritura pública. El ejercicio de dicha opción de retro (voluntaria para la Sociedad) requiere, en su caso, el reembolso del precio de venta de los bienes, más los gastos del contrato y cualquier otro gasto legítimo, incluidos los

hobekuntzak, ondasun horietatik bereizi ezin direnak, barne hartuta.

Atzera eskuratzeko aukera hori gauzatuz gero, sozietateak ordaindutako zenbatekoarekin erregistratuko du eskuratutako ondasuna, betiere zenbateko hori ez bada handiagoa merkatuko balioa edo dagokion lurzati edo eraikinerako une hartan ezarritako salmenta-prezioa baino.

Bestelako diru-sarrerak

Galdu-irabazien kontuko «Zerbitzu-prestazioak» epigrafean kontratuaren iraunaldian linealki aitortutako alokairuengatik diru-sarrerak jasotzen dira batez ere (7. oharra).

Finantza-aktiboetatik sortutako interesak interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz aitortzen dira. Nolanahi ere, eskuratu ondoren sortzen diren interesak diru-sarrera moduan aitortuko dira galdu-irabazien kontuan.

i) Hornidurak eta kontingentziak

Sozietatearen administratzaileek urteko kontuak egiteko orduan honako hauek bereizten dituzte:

- a) Hornidurak: iraganeko gertaeren ondoriozko oraingo obligazioak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak, baldin eta haiek kitatzeak baliabide-irteera eragitea oso litekeena bada, eta haien zenbatekoa eta/edo kitatzeko unea zehaztugabea bada.
- b) Pasibo kontingenteak: iraganeko gertaeren ondorioz sor daitezkeen obligazioak, sozietatearen nahiarekin lotuta ez dagoen etorkizuneko gertakizun bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen baitan badago haiek gauzatzea.

Urteko kontuetan jasotako hornidura guztiei dagokienez, estimatzen da obligazioari erantzun behar izateko aukera handiagoa dela hori ez gertatzeko aukera baino. Pasibo kontingenteak ez dira urteko kontuetan aitortzen, eta haien berri ematen da, ordea, memoriaren oharretan, betiere ez badira urrunekotzat jotzen.

Hornidurak balioesten dira obligazioa kitatzeko edo eskualdatzeko behar den zenbatekoaren ahalik eta zenbatespen onenaren balio eguneratuan, gertaerari eta haren ondorioei buruz eskura dagoen informazioa aintzat hartuta, eta aipatutako hornidura horiek finantza-gastu gisa sortzen den neurrian eguneratzeagatik sortutako doikuntzak erregistraturik.

Obligazioa kitatzeko unean hirugarren batengandik jasotzekoa den konpentsazioa, betiere diru-itzultze hori jasotzeko zalantzarik ez badago, aktibo gisa erregistratzen da, arriskuaren zati bat kanporatzeko legezko lotura badago eta horren arabera sozietateak erantzuteko betebeharririk ez badu izan

gastos necesarios y mejoras realizadas que no puedan ser separadas de dichos bienes.

En el caso del ejercicio de dicha opción de retro, la Sociedad registra el bien adquirido por el importe abonado, siempre que dicho importe no sea superior al valor de mercado o al precio de venta establecido en dicho momento para la parcela o edificación correspondiente.

Otros ingresos

El epígrafe "Prestaciones de servicios" de la cuenta de pérdidas y ganancias, recoge principalmente los ingresos por alquileres reconocidos linealmente en el periodo de duración del contrato (Nota 7).

Los intereses recibidos de activos financieros se reconocen utilizando el método del tipo de interés efectivo. En cualquier caso, los intereses devengados con posterioridad al momento de la adquisición se reconocen como ingresos en la cuenta de pérdidas y ganancias.

i) Provisiones y contingencias

Los Administradores de la Sociedad en la formulación de las cuentas anuales diferencian entre:

- a) Provisiones: saldos acreedores que cubren obligaciones actuales derivadas de sucesos pasados, cuya cancelación es probable que origine una salida de recursos, pero que resultan indeterminados en cuanto a su importe y/o momento de cancelación.
- b) Pasivos contingentes: obligaciones posibles surgidas como consecuencia de sucesos pasados, cuya materialización futura está condicionada a que ocurra, o no, uno o más eventos futuros independientes de la voluntad de la Sociedad.

Las cuentas anuales recogen todas las provisiones con respecto a las cuales se estima que la probabilidad de que se tenga que atender la obligación es mayor que de lo contrario. Los pasivos contingentes no se reconocen en las cuentas anuales, sino que se informa sobre los mismos en las notas de la memoria, en la medida en que no sean considerados como remotos.

Las provisiones se valoran por el valor actual de la mejor estimación posible del importe necesario para cancelar o transferir la obligación, teniendo en cuenta la información disponible sobre el suceso y sus consecuencias, y registrándose los ajustes que surjan por la actualización de dichas provisiones como un gasto financiero conforme se va devengando.

La compensación a recibir de un tercero en el momento de liquidar la obligación, siempre que no existan dudas de que dicho reembolso será percibido, se registra como activo, excepto en el caso de que exista un vínculo legal por el que se haya exteriorizado parte del riesgo, y en virtud del cual la

ezik; egoera horretan, konpentsazioa kontuan hartuko da dagokion horniduraren zenbatekoa, hala badagokio, estimatzeko.

j) Kaleratzeengatiko kalte-ordainak

Indarrean dagoen legediaren arabera, sozietatea derrigortuta dago langileei kalte-ordainak ematera, egoera jakin batzuetan beren arteko lan-harremana eten duen kasuetan. Horrenbestez, arrazoizko kuantifikazioa izan dezaketen kaleratzeengatiko kalte-ordainak gastu gisa erregistratzen dira kaleratzeko erabakia hartzen den ekitaldian.

2017 eta 2016 eko ekitaldietan ez da kalte-ordainengatiko gasturik eman. 2017ko abenduaren 31an ez dago ordaintzeko zenbatekorik.

k) Ingurumen-izaerako elementuak

